

PRENTSA-OHARRA

Iseo and Dodosound-ek, The Mousehunters-en haize-taldea alboan, Afrikako erritmoak, reggaea, hip-hopa eta erritmo elektronikoak ekarriko dituzte Zitudadelara asteazkenean

Kontzertua Arma Areto ondoko agertokian izango da, 21:00etan, eta sarrera doan da

Iseo and Dodosound-en kontzertua bihar, abuztuaren 9an, asteazkenarekin, The Mousehunters-en haize-taldearekin batera, non uztartuko baitituzte lehen urratsetan ibilitako Jamaikako erritmoak, reggaea eta dub estiloa beste estilo batzuekin, hala nola trip hopa, musika elektronikoa, hip-hopa eta musika etnikoa. Joan den ekainean kaleratutako *Roots in the Air* izeneko lan berriaren aurkezpena izango da. Maiatzean argitaratu zuten lehendabiziko singlea aurrerapen gisa, *Vampire*, baita horren bideoklipa ere. Kontzertua Arma Areto ondoko agertokian izango da, 21:00etan, Iruñeko Udalak antolatutako *Harresietako jaialdiaren* programazioaren barruan. Sarrera doan da.

Iseo and Dodosound musika-proiektua bi artista iruindar hauen topaleku gisa sortu zen. Lehen diskoa haien kabuz ekoiztu eta 2015an argitaratu zuten *Cat Platoon* izenburupean, eta bertan ezarri zituzten digitalaren eta analogikoaren arteko fusioa ezaugarri duen soinuaren oinarriak. Aurten, Zitudadelan jotzeaz gain, The Mousehunters-en haize-taldearekin batera penintsulako zein Europako beste jaialdi batzuetan ere parte hartuko dute, Frantzian, adibidez.. Agertokian Iseo (ahotsa) eta Dodosound (dub masterra) izango dira, beste musika-tresna batzuekin batera: saxo tenorra, saxo baritonoa, tronpeta eta flauta.

Harresietako jaialdiko hurrengo musika-emanaldia abuzturen 16an izango da, asteazkenarekin, Oskarbi euskal folk talde ezagunaren eskutik, zeinak 50 urte bete baititu taula gainean. Azken diskoa aurkeztuko dute: *Mendira naiz*. Kontzertuan hainbat abestiren errepaso egingo dute, hala nola *Mariñela*, *Zazpi urte* edo *Mendira naiz*.

Iruñean, 2017ko abuztuaren 8an